

## HELDUENTZAKO MATERIALAK





Ikasturte berri honetarako, amets egiten duen komunitate bat eraikitzea da gure proposamena, eta bat egin nahi dugu Frantzisko aita santuak proposatzen digun irrikarekin eta itxaropenarekin, gizaki guztion artean giza familia handi bat sortzeko, anaitasunaren munduko desira birsortzeko. Amets egiteak etorkizunerako ateak, aukerak eta eraldaketa-bideak irekitzen dizkigu; amets egiteak aukera ematen digu pertsona guztiarentzako bizitza desberdin eta hobe baten itxaropena sortzeko, irrikatzeko eta proiektatzeko, batez ere horizontez husturiko itxaropena bizi dutenentzat. Ikastaro honetan argi izateko gonbita egiten dugu: izan gaitzen itxaropen-ikur, etxegabetasunaren, langabeziaren, bakardadearen edo gizarte-harremanen gabeziaren aurrean. Komunitate izan behar dugu, eta argi egin behar diogu pertsona guztien duintasun-bideari. Gogoan izan Erromatarrei idatzitako gutuneko hitzak (12, 12) «Bizi zaitezte itxaropenean alai».

## **I. JARDUERA**

### Helburuak:

- Jabetzea zer esan nahi duen etxebizitzarako eskubidea eta beste hainbat eskubide urratzeak, eta zer-nola eragiten dion beste eskubide batzuk bermatzeari.
- Egoera horiei nola aurre egin hausnartzea, bidegabekeria-egoerak jasaten dituzten pertsonak prebenitzeko, arintzeko eta laguntzeko.

Dinamika: Eskubide okerren ipuina

*Txikia nintzenean, 5 edo 6 urte inguru nituela, beti amesten nuen gaztelu batean bizitzearekin. Izugarri gogoko nuen jolasetan gaztelu batean bizi nintzela irudikatzea; jostailu askoko gela handi bat nuela, arropaz eta zapataz betetako armairu batekin. Nire gazteluak, noski, gela asko zituen, bai eta lorategi handi bat ere, labirinto eta guzti, zeinean galdu egiten bainintzen irteera aurkitu arte. Nire gazteluan, urrutiko lekuetatik etorritako lagunak hartzen nituen; gozokiak eta litxarreriak jatera eta nirekin batera lo egitera gonbidatzen nituen. Eta elkarrekin jolasean aritzen ginen arratsalde amaigabeetan, dragoien aurka borrokan eta beti gainditzen genituen arriskuak saihesten.*

*Baina bizitzak laster erakutsi zidan ametsak amets direla, dragoiak existitzen direla, eta, surik botatzen ez badute ere, zapaldu eta suntsitu egin zaitzaketela.*

*Gure ama hil zenean hasi zen guztia aldatzen; aita ez zen gai izan galera gainditzeko eta gero eta gehiago hasi zen zurrutean. Azkenean, lanetik bota zuten. Ulertzen dut berarentzat ez zela erraza lau haur txiki zaintzea, elkarren oso segidakoak. Egun batean, gizarte-langile bat etorri zen etxera, eta erabaki zuen adingabeentzako zentro batera joan behar genuela. Hango bizimodua ez zen izan batere erraza; ezagutzen ez nituen hurrekin partekatu behar nuen logela, gustuko ez nituen elikagaiak jan behar, eta, batez ere, ez ziren nire familiakoak. Hemezortzi urte bete nituenean, pisu erdi autonomo batera igaro nintzen eta, aldi berean, prestakuntza amaitzen ari nintzen: estetika eta ile-apainketa ikasteko LHko modulu bat.*

*Amaitu ondoren, 700 euro kobratzen nituen enplegu bat lortu nuen, eta, horri esker, lortu nuen bizi nitzen tokitik ateratzea eta beste etxebizitza bat partekatzea neska ikasle batzuekin. Baina, hilabete batzuetara, bota egin ninduten lanetik eta etxebizitza utzi behar izan nuen, ezin izan bainuen jarraitu ordaintzen.*

*Orduantxe hasi nintzen nire hiriko gizarte-zerbitzuetan atzera eta aurrera, nire tankerako neska batentzat etxebizitzarako zer laguntza mota ote zeuden ikusteko. Bien bitartean, etxe okupatu batean ematen nituen egunak eta gauak, beste okupa batzuekin, eta inoiz lo egin nuen kutxazain elektronikoetan ere, begi bat itxita eta bestea irekita, beti adi arriskuak saihesteko.*

*Egun batean, hiriko gizarte-zerbitzuetan «ibilbide turistikoa» egiten ari nintzela, Caritaseko harrera-zentro baten berri eman zidaten. Gau batzuk igaro nitzakeen han, eta haraxe abiatu nintzen. Imajina dezakezue ez dela erraza zure berri kontatzea ezezagun bati; are zailagoa ez dakit zenbat aldiz kontatu duzunean zure egoera (bisitatu ditudan zerbitzu guztietan), latza baita jasandako mina eta galerak gogoratzea. Trago txar hori igaro ondoren, badira beste zailtasun batzuk ere: beste hiru emakumerekin gela partekatzea eta nire gauzak sartzeko armairu ñimiño bat izatea, bazkaltzeko ordutegi batera egokitzea, 21:00etan itzultzea eta gero ezin irtetea, denetarako baimena eskatzea, beste 27 pertsonarekin bizitzea –nik baino arazo gehiago edo berdinak dituztenak–, eta, batez ere, nire bakardadea, ni eta neure burua jasaten saiatzea, jira eta bira dabilen buruari eustea...*

Pentsatzen dut eskertuta egon behar dudala bizitzeko moduko teilatu bat eta nitaz arduratuko den norbait edukitzeagatik, baina oso bestelakoa da etxe hau –orain-oraingoz eskuragarri daukat, baina ez dakit zenbat egunez eduki ahal izango dudana–. Ez dauka tankerarik batere familiaren bizileku gisa amesten nuen gazteluarekin, gonbidatutako lagunak hartzeko tokiarekin, zeinean espazio eksklusibo bat baitzegoen niretzat eta askatasun osoa bainuen nire egun guzti-guztiak antolatzeko.

### «ESKUBIDERAKO» ESKUBIDEAK


Utzi nuen lekuan jarraituko dut nire istorioa kontatzen. Badakizue ameslaria naizela. Eta, gezurra badirudi ere, urteek eta bizitako bizitzak gauza asko kendu dizkidatela, baina ezin izan didate kendu amets egiteko gaitasuna. Eta egin dut amets...

Bizi naizen zentroko gizarte-langileak esan dit bakarrik dauden pertsonentzako etxebizitza sozialak daudela; ez da beharrezkoa familia-kargak izatea, ezta horiek eskuratzeko ezinezko baldintzak betetzea ere, eta, gainera, itxarote-denbora ez da luzeegia; bien bitartean, zentroan jarrai dezaket lana bilatzen eta, psikologoaren laguntzarekin, nire bizitza berrosatzen saiatzen. Auzoko gizarte-langilearengana joan naiz: inprimakia betetzen lagundu dit, eta behar ditudan dokumentuak bilatzen ere lagundu dit; izan ere, ez nago ohituta paper horiek guztiak egitera, oso zaila eta konplexua egiten zait.

Bi hilabetez zain egon ondoren, iritsi zen azkenean zentrora etxebizitza sozialaren emakidagutuna. Nire ametsetan agertzen zitzaidan hurrengo arazoa zera zen, lan bat lortzen nuen bitartean nola bizi nintekeen jakitea, ez bainuen inolako diru-sarrerarik. Baina, gizarte-langileari nire kezka azaldu nionean, adierazi zidan badaudela gutxieneko errenta batzuk nire egoeran dauden pertsonentzat, norbere diru-sarrerak izan arte ematen dituztenak.

Eta hementxe nago, NEURE ETXEAN. Ez da nik amesten nuen gaztelua, baina aukera eman dit neure etxebizitzatzat daukadan honetan bizi izateko, hainbeste denboran «hara eta hona» ibili ondoren. Ni bizi naizen auzoan jendeak ezagutzen nau, auzo-komunitate bateko kide naiz, eta bertako bileretan parte har dezaket. Erroldatu egin naiz, eta horrek aukera eman dit osasuntxartela izateko eta okulistarekin datorren hilean txanda hartzeko; izan ere, konturatu naiz ez dudala lehen bezain ondo ikusten. Eta, gainera, botoa eman dezaket!

Harrera-zentroko lagunak noizean behin etortzen zaizkit bisitan, eta beren gauzak kontatzen dizkidate. Eta, garrantzitsuena, hainbeste urtez familiaren berri izan gabe egon ondoren, haiekin





*harremanetan jartzea lortu dut; izan ere, zer eskaini ahal nien lehen? Nola esan kutxazain batean bizi nintzela?*

*Gizarte-zerbitzuetako kale-hezitzailea laguntza ematen ari zait eta nirekin partekatzen ditu nire aurrerapen txikiak. Enplegua bilatzen laguntzen dit, diru-sarrera handiagoak izateko eta erakundeen mende ez egoteko aukera izan dezadan.*

*Kaletik itzuli eta nire etxeko atea ixten dudanean, dena ondo dagoela sentitzen dut, borrokan ari naizela eta gauza handiak lor ditzakedala; orain, motxila bat baino zerbait handixeagoan sartzen da nire mundua.*

*Baina, zoritxarrez, hau ametsa besterik ez da, 40 urterekin amets egiten jarraitzen dut. Bitartean, bizi naizen harrera-zentroko aretoko telebistan (oraindik ez dakit zenbat denboran jarraituko dudan hemen), higiezinaren burbuila nola lehertu zen aipatzen dute, etxebizitzaren merkaturia nola hondoratu zen. Eta neure buruari galdetzen diot noiz utzi zion etxebizitza bat izateak eskubide eta behar bat izateari eta, haren tokian, noiz bihurtu zen partida ondo jokatzeko dutenak aberats bihurtzeko produktu. Eta galdetzen diot neure buruari, era berean, nola igaro ziren banketxeak aditzera ematek guztiok izan genezakeela hipoteka-kreditu bat, eta, gero kale gorrian uztera, etxerik gabe, eta, osatzeko, etxebizitza haren hipotekaren zorra ordaintzen.*

*Eta gogoan dut «construir castillos en el aire» zioen kanta hura, gazteluak berriz ere...*

#### Gogoeta:

- Zer iruditu zaizu istorio hau? Zer egin zaizu deigarriena?
- Ezagutzen duzu antzeko egoera bizi duen pertsonarik? Zer laguntza-mota ari da jasotzen?
- Zer iruditu zaizu kontakizunaren bigarren zatia («Eskubiderako» eskubideak)? Zure ustez, egunen batean iritsiko gara etxebizitzaren arazoari heltzeko modu horretara? Zer egin dezaket/dezakegu?

Orain bideo hau ikusiko dugu: <https://www.youtube.com/watch?v=gq4RelQ08ZI>

- Zer itxaropen-zantzu ikusten duzu lekukotza horretan?
- Zer dei egiten digu lekukotasun horrek komunitate gisa?

Otoitza:

Guztion Aita, eskerrak emoten deusuguz, gizon, emakume eta ume guztiok  
aske eta bardin jaioten garalako duintasunean eta eskubideetan.

Zuk lagunduta, anai eta arreba lez bizi gaitetzala zure aurrean.

Jesus Jauna, gutar lez etorri zinan gure artera eta ez zinduguzan onartu.

Gaur be, hainbat herrialdetan, gure anai eta arreba askori  
euren eskubideak ukatzen deusiez.

Eurengan, kurutzean josita agertzen zara gaur be.  
parkatu eta salbatu gaizuz.

Espiritu Santua, gure bihotzen argia,  
etorri eta erakutsi Jainkoaren seme eta alaba  
izatearen duintasunetik sortzen dan jakinduria.

Emoiguzu ahalmena danontzako lekua dauan mundua sortzeko.

Jauna, izaki aske jaioten garanez,  
iraun daigun aske Zuregana bihurtu arte.

(Kameruneko Bamendako kristauek prestatutako otoitza)



## 2. JARDUERA

### Helburuak:

- Pertsona guztiak beste pertsonentzako itxaropen-izpia izan gaitzkeela jakitea.
- Gizartea eraldatzeko gure gaitasunarekin jabetzea zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonak akonpainatu eta lagunduz (itxaropen-zeinuak).

### Dinamika:

Irakur ditzagun hurrengo lekukotzak:

*“Lanean ezin nintzen kexatu, eraikuntzan beti zegoen zeregina, lan gutxiago sartzen hasi eta azkenik amaitu egin zen arte. Nagusiak lantaldearen erdia baino gehiago kaleratu gintuen. Orduan, dagoeneko ezin nezakeen alokairua ordaindu, estutu egiten zara ez dakizulako zer egin eta nori laguntza eskatu, eta kalean bizitzen ikusten duzu zure burua. Ni lana bilatzen saiatzen nintzen, baina beti gauza bera gertatzen zen; leku guztietara motxila bizkarrean daramazula zoaz eta, sarritan, zure burua ezin apaindu eta garbituta... eta non bizi ez duzula konturatzen dira. Zenbat bider aprobetxatu dira inguruabar horrekin eta lana egiteagatik ordaindu ere ez didate egin... Landan lanaldian zehar jaten emate hutsarekin oso ongi ordainduta zegoela esaten zidaten. Oso zaila da. Orain, pandemiarekin, dena Internet bidez egin behar da, eskaintzak, elkarrizketak, baina ni ez naiz ordenagailu batekin moldatzen eta horrela ezinezkoa da ezer lortzea. Agian ordenagailuarekin lagunduko ninduen inor izango banu edo guztia bertatik bertara izango balitz, agian hau beste modura batera jazoko zen” Jose, 59 urte*

*“Gurasobakarreko familia izaki, ezin izan dut etxebizitza batean sartu, ezta enplegurako babesean ere, nire seme-alaben premiak artatu behar baititut. Ezin izan dut enplegu babestua eskuratu, eta genero-indarkeria pairatu duten kolektiboetan sartu edo, nire ardurapean adin txikikoak izan arren, ezin izan dut halako kolektiboetako kide izan. Gurasobakarreko familiei edo ardurapean adin txikikoak dituzten familiei zuzendutako laguntza espezifikoekin lagun nezaketen. Seme-alabak dituzten familientzako zentro espezifikoak sortuz, esate baterako. Laneko eta eskolako ordutegiak bateragarri eginez, esate baterako. Ekarpen ekonomikoekin lagunduz ludoteka edo*



*hautzaindegietarako adibidez, horrela, nik lan egin ahal izateko. Familiarako laguntza sustatu, horrela laguntzarako loturak sortuz”.* Vanesa, 41 urte.

Gogoeta:

- Zer ari dira bi pertsona horiek eskatzen? Beren bizitzak hobetzeko proposatzen dituzten gauzen artean, zein dira instituzio publikoen ardura, zein gizarte erakundeena, zein komunitate kristauarena, zein nirena...
- Zein beste neurri proposa daitezke bizitza duin bat izan dezaten?

Boluntariotzak batu eta biderkatu egiten du. Boluntariotza x pertsona zaugarrienak = akonpainamendua, laguntza, integrazioa, laguntasuna, itxaropena, duintasuna... Ikus dezagun hurrengo bideoa: <https://youtu.be/8Thk6ld0Dj8>

- Zein balio partekatzen dute Ana eta Charok?
- Nola lagundu eta babesten dute elkar?
- Zein ekarpen egiten du komunitate kristauak halako esperientzietan? Itxaropen-zeinuko zien beste esperientzia ematen dira gure komunitatean?





Otoitza:

Alkartea, beste batzukaz batera egindako bidea,  
esku-mordoa lotuta, alkarregaz ibilaldia atsegina egiteko,  
alkar bilatu eta besarkatzen diran begiradak,  
guregaitik bizia emon eban Haren begirada erakarteko.

Alkarri lotuta bizi dan bizitza da,  
itxaropen bardinen pean aldeak batzea da, holan banatu ez gaiezan.

Alkartea, guztion egitasmoa da,  
guztion ametsak, bidelagunen ibilbideak.

Bestearengan pentsatzea da,  
bestearentzat onena dan horretan eta, alkarregaz,  
gu guztiontzat onena dan gure onenean pentsatzea.

Bizkarrean zaplada emonez adore emotea da,  
haserretzeko bildur barik alkar zuzentzea.  
Apurka-apurka alkarregaz hazteko alkar sustatzea da.

Alkartea, irekitzea eta emotea,  
besteen aldeko zerbitzua,  
nork bere burua alkarri oparotasunez emotea.

Bizi, itxaropen eta maitasunaren iturri dan Jainkoaren bizia banatzea da.

Alkartea, benetako erizpideetan (Ebanjeliokoak),  
aukera ausartetan (Jesusenak),  
erronka ausartetan (abian dan Erreinuarenak) bat egitea.

Alkartea, Espirituak suspertuta eta adoretuta,  
Jainkoari 'hemen gagoz, Jauna, bat eginda eta bidean'  
oihuka esan gura deuskan askoren bategitea.

